

Hausturak Rupturas

[Pedagogia Intentsiboko proposamen bat]

[Una propuesta de Pedagogía Intensiva]

HeziZerb elkartea
Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politikako Departamentua

"Hausturak"-ek bidaia
du bere oinarri,
bizitza bera baita
joan eta etorri,
hau da hasieraren
irteera-mugarri,
zer den ezagutzeko
bazera egarri,
liburua da trena
igo ia irakurri.



[**Argitaratzailea - Edita**]

HeziZerb elkarte (www.hezizerb.net)

[**Diru-laguntza - Subvenciona**]

Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte politikako Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa. Departamento de Política Social
(www.gipuzkoa.net)

[**Sorkuntza, bilduma eta erredakzioa - Creación, colección y redacción**]

Jon Etxeberria Esquina eta Iker Alustiza Lasa.

[**Azala eta maketazioa - Portada y maquetación**]

Verano González (Cuarto y Mitad)

[**Web orria - Página web**]

Alazne Berges (www.hezizerb.net/hausturak)

[**Itzulpenak - Traducciones**]

Eskura Itzulpen Zerbitzuak S.L.

[**Hausturak Taldea - Equipo Hausturak**]

Jon Díez
Oscar Holgado
Ion Arruabarrena
Garikoitz Olaizola
Alazne Berges
Martín Arregui
Carlos Arguilea
Iker Alustiza
Jon Etxeberria

[**Eskerra - Agradecimientos**]

Felipe Cabrerizo
Ricardo Sánchez
Pili Azpeitia

[**Inprimaketa - Impresión**]

Arteder S.L.

[**Lege Gordailua - Depósito Legal**]

JJJJJ

Hausturak

[Pedagogia Intentsiboko proposamen bat]

Rupturas

[Una propuesta de Pedagogía Intensiva]



Sarrera Introducción

Heureux qui comme Ulysse
A fait un beau voyage
Heureux qui comme Ulysse
A vu cent paysages
Et puis a retrouvé après
Maintes traversées
Le pays des vertes allées

Par un petit matin d'été
Quand le soleil vous chante au cœur
Qu'elle est belle la liberté
La liberté

Quand on est mieux ici qu'ailleurs
Quand un ami fait le bonheur
Qu'elle est belle la liberté
La liberté (...)

Georges Brassens: Heureux qui comme Ulysse.

Azken hamarkadan haurtzaroa eta gaztaroa babestu eta bultzatuko duen sistema bat garatzeko erakundeek egindako ahalegin publiko izugarriaren ondotik, badirudi arlo kualitatiboago eta zehatzagoak jorratzen dituzten metodologia eta praktiketan sakontzeko garaia iritsi dela. Nera-bezaroa eta horrekin loturiko arazoak “gure kulturaren ondoezaren” sintomak izango balira bezala arreta gune bilakatzen diren testuinguru sozial korapilatsu honetan, behar-beharrezkoa dirudi sormenean eta esperimentazioan eta gizarte eta hezkuntza arloan dugun ondarean oinarritutako jarduera-ildoak proposatzea.

Baliabide konbentzionalen erantzun-gaitasuna gainginditzen duten egoerak ugariak dira, eta gaur egun, horietara jo beste irtenbiderik ez dute topatzen adin txikikoekin lan egiten duten gizarte zerbitzuetako, hezkuntzako, osasun arloko edo zerbitzu komunitarioetako sarean murgilduta dauden gizarte eta hezkuntza arloko profesionalek. Krisi askok “ez dute tokirik” ezarritako moldeetan, zentzu baten bila dabiltzan nerabeak asko dira eta, era berean, profesional askok sentitzen dute erantzun ego kituagoen, indibidualizatuagoen eta ekintzan oinarrituen beharra. Gure inguru hurbilean oso gutxi edo apenas txertatutako erreferentzia batzuk topatzen ditugu Europan, hala nola, Pedagogia Intentsiboa, haustura-egonaldiak edo hezkuntza-kidetasun trinkoak izendatzen diren proiektuak. Baliabide iragankorrak dira, gazteei gizarte eta hezkuntza arloko prozesu bat eskaintzeko xedea dutenak, eta halakoetan, hezitzaileen eta adin txikikoen arteko espazioa eta denbora trinkoagoak dira, kirol ekintzak, abentura-jarduerak, lan arlokoak edo kulturalak egiten baitituzte. Pedagogia Intentsiboa egiteko bi modu zehazten ditugu: bata barnekoa, jadanik eza-

Después del enorme esfuerzo público y asociativo por desarrollar un sistema de protección y promoción de la infancia y la juventud realizado en la última década, parece que es tiempo de profundizar en metodologías y prácticas que aborden aspectos más cualitativos y específicos. En un contexto social de enorme complejidad en el que la adolescencia y sus problemáticas se colocan en el centro de atención como un síntoma del “malestar de nuestra cultura”, parece necesario proponer líneas de actuación innovadoras basadas en la creatividad, en la experimentación y en nuestro patrimonio socio-educativo.

Existen gran número de situaciones que desbordan la capacidad de respuesta de los dispositivos convencionales a los que en la actualidad pueden recurrir los profesionales socio-educativos de la red de servicios sociales, educativos, sanitarios o comunitarios que trabajan con menores. Muchas crisis no encajan en los moldes establecidos, muchos adolescentes no encuentran un sentido y muchos profesionales sienten que se necesitan respuestas más adaptadas, individualizadas y basadas en la acción. En Europa disponemos de una referencia poco o nada instaurada en nuestro entorno cercano, los denominados proyectos de *Pedagogía Intensiva*, *estancias de ruptura* o *acompañamientos educativos de intensidad*. Son dispositivos transitorios que tratan de ofrecer a jóvenes en proceso socio-educativo experiencias significativas donde el espacio y el tiempo se intensifican entre los educadores y los menores, realizando actividades deportivas, aventureras, laborales o culturales. Definimos dos formas de hacer Pedagogía Intensiva: una *interna*, que se aborda con los jóvenes a los que ya conocemos como parte de la relación de confianza establecida,

gutzen ditugun gazteekin lantzen dena, aurrez ezarritako konfiantzazko harremanaren atal gisa, eta bestea, kanpokoa, “kanpotik” proposamen bat egiten duen hezitzaile talde batek sustatua. Egoera eta testuinguruaren arabera, bata ala bestea planteatu daiteke.

HeziZerb elkartean, hainbat urtetik hona gure testuingurura egokitu-tako Pedagogia Intentsiboaren metodologia bat sistematizatu dugu. Bestalde, gizarte eta hezkuntzaren arloan hautematen diren beharrezko erantzuteko dugun irrikak eraginda, eremu honetan 2006an jardunbide onen proiektu bat proposatu genuen. Orduz geroztik eta 2008ko ekaineraino, **Gipuzkoako Foru Aldundiak** programa honetarako diru-laguntzak eman izan ditu, hiru fasetan banatuta:

- 1- Metodologia kontrastatu eta doitzea
- 2- Adin txikikoekin esperientzia-pilotuak garatzea
- 3- Ezagutza gizarteratzea

Argitalpen hau dugu prozesu horren azken kate-maila. Aldaketak egiteko irekita dagoen gizarte-hezkuntza baten eraikuntzan egindako ekarpen xume bat izatea da bere asmoa, tradizioan oinarrituta berritzeko eta eztabaida kritikoa sorrazteko gai izango dena. Ez dugu eztabaidarik isilarazi nahi; aitzitik, galderak sorrazi nahi ditugu, eta beraz, ez ditugu eredu bakar eta berdingabeak aurkeztuko, jarduteko pistak baizik. Modu honetan, urte hauetan ikasitakoa partekatu nahi dugu eta, zailtasunak zailtasun, eta desilusio profesionalak alde batera utzita, eztabaida bat bultzatu nahi dugu, honako ideiarekin bat egitera eramango gaituena: nerabea munduarentzako zorte bat da, munduarentzako aukera bat da. Lan hau

y una *externa*, animada por un equipo de educadores que realiza “desde fuera” una propuesta. Dependiendo de las situaciones y de los contextos, se puede plantear una u otra.

En **HeziZerb elkartea** venimos sistematizando desde hace años una metodología de Pedagogía Intensiva adaptada a nuestro contexto. Por otro lado, nuestra inquietud por responder a las necesidades que se detectan en el ámbito socioeducativo nos animó a proponer en 2006 un proyecto de *buenas prácticas* en ése ámbito. Desde entonces y hasta junio de 2008, la **Diputación Foral de Gipuzkoa** ha subvencionado este programa dividido en tres fases:

- 1- Contraste y puesta a punto de la metodología
- 2- Desarrollo de experiencias piloto con menores
- 3- Socialización del conocimiento

Esta publicación es el último eslabón del proceso. Pretende ser una modesta aportación en la construcción de una educación social abierta a los cambios, capaz de innovar desde la tradición y de generar discursos críticos. No queremos cerrar debates sino provocar preguntas, y por lo tanto no vamos a presentar modelos únicos sino pistas de actuación. Intentamos así compartir lo aprendido en estos años e introducir un discurso que nos reconcilie con la idea de que a pesar de las dificultades y de los desencantos profesionales, *un adolescente es una suerte para el mundo, es una oportunidad para el mundo*. Esperamos que este trabajo haya servido para ir creando una cultura de la Pedagogía Intensiva entre los profesionales de la acción social en Gipuzkoa.

Gipuzkoan gizarte-ekintzan diharduten profesionalen artean Pedagogia Intentsiboaren kultura sortzen joateko baliagarri izatea espero dugu.

*Gizarte eta hezkuntza arloko jarduerak, sarritan, krisi egoerekin loturik agertzen dira, etsipenezko egoeren erdian, muturreraino iritsi diren pertsonen muga-mugan. Hori dela eta proiektu honi **Hausturak** azpigitulua ezarri diogu.*

Nerabeei esperientzia adierazgarriak eskaini ahal izatea da gure asmoa, beren egunerokotasuna apurtu dezaten, eta esperientzia horietatik abiatuz, benetan existitzen direla sentiarazteko kontakizun pertsonalak eraiki nahi ditugu. Distantzia apur bat hartzen lagunduko diguten hausturak dira, gauzak eraikitzen eta besteen mira izaten lagunduko digutenak: abiatu gero itzultzeko, bizi gero kontatzeko, hautsi gero berreraikitze... Hausturak zauriak ixteko baliagarri izan daitezke.

Liburu hau bidaiez mintzo zaigu, egin genuenaz eta egiteko edo imajinatzeko dugunaz, horrelakoak antolatzeko moduaz eta hezkuntza-proposamen bat egiteko moduaz. Ez da eskuliburua, ezta erabilera-orri bat ere. Gizarte eta hezkuntza arloko tresna bati buruzko gogoeta kolektiboa da, iraganaren garrantzia azpimarratzen duten hitzez osatua.

Sartu barrura. Abian da gure bidaia.

La práctica socio-educativa se inscribe a menudo en momentos de crisis, en medio de desasosiegos, en los territorios fronterizos de personas que se encuentran en el límite. Por eso hemos subtitulado este proyecto **Hausturak (Rupturas)**.

Queremos poder ofrecer experiencias significativas a los adolescentes para que rompan con su cotidianidad y a partir de ellas construyan un relato personal. Rupturas que nos hagan tomar distancia y nos ayuden a elaborar y a echar de menos: salir para volver, vivir para contarlo, romper para reconstruir... Las rupturas pueden servir para producir suturas.

Este libro habla de los viajes, de los que hicimos y de los que nos quedan por hacer o imaginar, de cómo organizarlos, y de cómo hacer de ellos una propuesta educativa. No es un manual, ni un prospecto de modo de empleo. Es una reflexión colectiva sobre una herramienta socio-educativa, palabras que evocan la importancia del tránsito.

Suban a bordo. Iniciamos el viaje.



Pedagogia Intentsiboaren oinarriak Fundamentos de la Pedagogía Intensiva

No hay aprendizaje sin exposición, a menudo peligrosa, al Otro.
No sabré nunca más quién soy, en dónde estoy, de dónde vengo,
a dónde voy, por dónde pasaré.
Me expongo al Otro, a las extranjerías.
Ningún aprendizaje evita los viajes.
Con el apoyo de una guía, la educación empuja al exterior.
Vete: sal del vientre de tu madre, de la cuna, de la sombra alargada
de la casa del padre y de los paisajes juveniles.
Vete a la intemperie, a la lluvia: fuera faltan los refugios.
Tus ideas iniciales sólo repiten palabras viejas. Joven = viejo loro.
El viaje de los niños, en él está el sentido desnudo de la palabra griega pedagogía.
Aprender nos proyecta a la vida errante.

Michel Serres: El Otro instruye

[Zer da]

Pedagogia Intentsiboaz ari garenean, "haustura-egonaldiak" edo "hezkuntza-kidetasun trinkoa" espresioak ere erabil ditzakegu. Esperientzia hauetan denbora eta espazioa bateratu egiten dira, trinkotu eta hezkuntza-harremana estutu egiten da. Oinezkoentzako ibilbideak, nabigazioa, lan-eremuak, nekazaritza-lanak edo beste herrialdeetara eginiko bidaiak izan ohi dira formaturik ohikoenak. Gutxienez astebetez, baina zenbaite-tan, urtebetez ere bai, hezitzaile baten laguntza izango duten 4-8 pertso-na edo norbanakok bizikidetzaz eta aurkikuntzaz beteriko abentura bati ekingo diote.

Haustura-egonaldi horiek talde naturalekin egiteko barne proiektuak garatuko dituzten zenbait metodologia daude, lehendik konfiantza bat finkaturik duen gizarte eta hezkuntza arloko programa baten jardue-ra gisa, eta halaber, badira Pedagogia Intentsiboaren kanpo zerbitzuak eskaintzeko metodologia zehatzak ere.

[Iturriak]

Gaur egungo gizarte-hezitzaile asko Aisialdiko hezkuntzatik, bo-luntario-lanetik, intuiziotik, ahozko transmisiotik eta ekintzan oinarritutako pedagogia batetik gatoz. Urte batzuk geroago, gertatu diren aldaketa sozialen eraginez eta testuinguru informaletan heziketa profesionalizatu ondoren, uste dugu galtzen joan direla praktika haietako asko, eta estra-tegia teknokratikoekin edo nerabeentzat kontsumo hutsa baino ez diren

[De qué se trata]

Para hablar de Pedagogía Intensiva también podríamos utilizar las expresiones “estancia de ruptura” o “acompañamiento socioeducativo de intensidad”. Son experiencias en las que el tiempo y el espacio se compactan/comprimen y la relación educativa se estrecha. Los formatos habituales suelen ser las rutas a pie, la navegación, los campos de trabajo, las tareas agrícolas o los viajes a otros países. Durante al menos una semana y en algunos casos hasta un año, grupos de 4 a 8 personas o individuos acompañados de un educador atraviesan una aventura de convivencia y descubrimiento.

Existen metodologías para desarrollar *proyectos internos* de estancia de ruptura con grupos naturales y como actividad de un programa socio-educativo en el que ya existe relación de confianza, y metodologías específicas para ofrecer *servicios externos* de Pedagogía Intensiva.

[Fuentes]

Muchos de los educadores sociales de hoy venimos de la educación en el Tiempo Libre, del voluntariado, de la intuición, de la transmisión oral y de una pedagogía basada en la acción. Algunos años después, con los cambios sociales acontecidos y con la profesionalización de la educación en contextos informales, pensamos que muchas de aquellas prácticas se han ido perdiendo, se han sustituido por estrategias tecnocráticas o por actividades de mero consumo para los adolescentes. Pero aquellas herra-

ekintzekin ordezkatu direla. Baina gure iritziz, intuiziozkoagoak eta bizi-penez beteagoak ziren tresna haiek oraindik ere baliagarri dira, erabilgarri dira eta berreskuratu egin daitezke. Gaur egun hain gutxi aipatzen den proiektuaren pedagogia, inspirazio-iturri da, eta nerabeak aldaketaren subjektu bilakarazten dituen jarduteko modu bat ere bada, nerabeei jarduteko eta antolatzeke gaitasuna ematen baitie. Eta oinarri horretatik abiatuta eraikitzen dugu haustura-egonaldien metodologia hau. Baina iturri honetaz baliatzeaz gain, beste hainbat iturri ere erabiltzen ditugu modu heterodoxoan, eta lortutakoa, praktikaren gainean egindako gogoetaren emaitza ere bada.

Hori dela eta, nerabea behatzeko ikuspegi sistematiko bat ere bada-rabilgu, arreta gehiago eskainiz nerabeak egiten duenari: bere jokabideei, bere aldarrikapenei, bere adierazpideei, sistema baten sintoma gisa harturik (familia mailakoa, soziala...), hari erruduntasun sentrazioa arintzeko eta egonaldiek eragin gehiago izan dezaten, hots, esperientziak, adin txikikoengan eragina izateaz gain, ingurune osoari ere eragin diezaion. Beraz, gaztearen inguruan sortzen den eragina bilatzen dugu.

Baina ezin dugu alde batera utzi diskurtso psikoanalitikoak, ez bere gizarte-gaiaren interpretazioak, ez norbanakoaren trataera, ez gabezien inguruan egiten dituen ekarpenak, ez kontakizunak sorrarazteko duen esperientzia eta ez esaten dena zalantzan jartzeko gaitasuna ere.

Hezitzaileei buruzko kapituluaren geroago ikusiko dugun moduan, gure ustez metodologia honetan ez dago esku-hartzearen xederik, adiskide hezitzaile bat baizik. Helduak zein nerabeak ingurunearekin elkarerraginean

mientas más intuitivas y vivenciales siguen siendo vigentes, útiles y rescatables. La *pedagogía del proyecto*, poco aludida hoy en día, constituye una fuente de inspiración y una manera de hacer que coloca a los adolescentes como sujetos de cambio, como capaces de hacer y de organizarse. Y es ahí donde mejor basamos esta metodología de las estancias de ruptura. Pero además de esta fuente, bebemos de muchos otros manantiales de forma heterodoxa y el fruto también es resultado de reflexiones sobre la práctica.

Por eso utilizamos también una perspectiva sistémica para mirar al adolescente, más bien lo que el adolescente hace: sus conductas, sus manifestaciones, sus expresiones, como síntoma de un sistema (familiar, social...), para desculpabilizarlo y para que las estancias tengan un alcance mayor: que las experiencias afecten no sólo a los menores sino también a su entorno. Buscamos un impacto alrededor del joven.

Pero tampoco podemos renunciar al discurso psicoanalítico, a su interpretación de lo social, al tratamiento individual, a sus aportes sobre la carencia, a su experiencia en la confección de relatos y en el cuestionamiento de lo que se dice.

Como luego veremos en el capítulo dedicado a los educadores, para nosotros no existe en esta metodología un objeto de intervención, sino un *partenaire* educativo: adultos y adolescentes interactúan con el medio y se transforman, crecen, aprenden conjuntamente y son sujetos de transformación. Y eso nos viene de la Educación Liberadora.

daude eta eraldatu egiten dira, hazi egiten dira, elkarrekin ikasten dute eta eraldaketaren subjektu dira. Eta hori Heziketa Askatzailetik datorkigu.

Liburuak irakurriz edo ikastaroetara joanez barneratutako ekarpen hauez gain, nerabeekin bizi eta lan eginez, aurreiritzirik gabeko ideia eta eredu batzuk finkatu ahal izan ditugu, tradizio epistemologiko bateko edo besteko elementuak alboratuz edo barneratuz.

Eta heziketari buruzko ideia nolabaiteko honen oinarriaren gain, horrelakoak gazteekin erabilgarri izateko beharraz gogoeta egin dugu, ukitzen duen oro hutsal eta kontsumigarri bilakatzen duen gizarte baten kontraesanen inguruan hausnartu dugu, baina, baita plazer hotz eta proiekturik gabearen bilaketa hedonistari buruz ere... Eta gain-gainetik aipatu ditugun elementu hauek guztiak emantzipazioaren gaira eramaten gaituzte, gizon edo emakume burujabeak izateko biderantz, baina, betiere, beste gizon eta emakume batzuekin batera, eta halaber, erabakiak hartzera edo norberaren patua kudeatzera bideratzen gaituzte.

[Mugak eta polemikak]

Dena den, eta testu hau, eskuliburu bat baino gehiago, pista-jolas bat denez, ezin dugu azaldu gure ustez zer den Pedagogia Intentsiboa, gure ikuspegiarekin bat ez datozen beste modu batzuk aipatu gabe. Hala, esaterako, beste garai batzuetan soldaduska haustura bat zen gizon gazteentzat gizarte militarista batean. Horrelako hausturek oso bizipen txarrak ekarri zituzten, nahiz eta pertsona pobre askorentzat “mundua ikusteko”,

Además de estas aportaciones integradas leyendo libros o asistiendo a cursos, viviendo y trabajando con adolescentes hemos podido contrastar ideas y modelos sin prejuicios, descartando o añadiendo elementos de una u otra tradición epistemológica.

Y sobre este basamento general de una cierta idea de educación hemos reflexionado con los jóvenes sobre su necesidad de ser útiles, sobre la falta de rituales de paso, sobre las contradicciones de una sociedad que banaliza y hace consumible todo lo que toca, sobre la búsqueda hedonista del placer frío y sin proyecto... Y todos estos elementos enumerados someramente nos llevan a la cuestión de la emancipación, al camino de hacerse hombres o mujeres autónomos pero enlazados a otros hombres y a otras mujeres, a tomar decisiones y a gestionar el propio destino.

[Límites y polémicas]

No obstante, y como este texto no es un manual sino un juego de pistas, no podemos explicar lo que es para nosotros la Pedagogía Intensiva sin hablar de otras formas que no corresponden con nuestro punto de vista. Así, en otras épocas históricas el servicio militar era una ruptura para los hombres jóvenes en una sociedad militarizada. Rupturas que conllevaron muy malas vivencias aunque sirvieran a muchas personas pobres a “ver mundo”, a aprender a leer y a convertirse simbólicamente en adultos. Parecidas propuestas parecen volver hoy con una regresión conservadora de la “mano dura” para hacer frente a conflictos con adolescentes, y de dispositivos muy *comportamentalistas* que pretenden “reprogramar” a los

irakurtzen ikasteko eta, sinbolikoki bada ere, heldu bilakatzeko modua izan zen. Badirudi gaur egun, nerabeekin izaten diren gatazkei aurre egiteko, antzeko proposamenak itzultzen ari direla, “esku irmoaren” itzulera kontserbatzailea bizi duela, eta norbanakoa “birprogramatu” eta urruneko herrialdetan egiten diren egonaldiak eta praktika militarretan oinarritutako diziplina gogorrekin gizarteratu nahi dela, oso portaerazaleak diren baliabideak erabilia. Horraino iritsi gabe, beste haustura-egonaldi mota batzuk ere badaude, eta nahiz tratu zuzena eta hezkidetza egokia izan, erredentzioaren ikusmoldean oinarrituak daude, zigorrean oinarrituak, hots, subjektuen emantzipazioarekin baino gehiago menderakuntzarekin zerikusia duen isolamenduaren ideia batean. Modu honetan, eta krisi eta nahasmenezko egoera honetan, emaitza kuantitatiboetan eta diziplina zorrotzaren abantailetan oinarritutako baliabide zahar-berriak berragertzeko arriskua dago. Erne egon behar dugu, metodologia on oro balioetan oinarritzen delako eta horiek direlako erabakigarrienak. Nerabe bihurriak isolatu nahi baditugu, “birprogramatu” egin nahi baditugu, haustura-egonaldiena metodologia arriskutsua da.*

Aitzitik, gazteei hazteko espazioak, kontrastezkoak eta bizipenezkoak eskaintzeko asmoa badugu, gazteei hazten eta gizaki kritiko eta arduratsu izaten lagundu nahi badiegu, haustura-egonaldiak ezaugarri zehatz batzuk bete behar dituzte, eta beraz, “komandoekin” zerikusirik ez duen Pedagogia Intentsibo batez ari gara, behartutako lanekin zerikusirik

* Ikus, muturreko egoera modura, jokabide-aldaketan espezializatutako barnetegiak, WWASpak 30.eko hamarkadan AEBan garatuak, Kisnerren proposamenean oinarrituta. Edo baita ere, era desberdineko diktatura askok antolatutako adin txikikoentzako barnetegiak.

individuos y adaptarlos a la sociedad mediante estancias en países lejanos y con disciplinas severas basadas en la práctica militar*. Sin llegar a eso, existen un tipo de estancias de ruptura que siendo correcto el trato y bueno el acompañamiento educativo están basadas en una expectativa de redención, en un castigo, en una idea de aislamiento que más tiene que ver con la doma que con la emancipación de los sujetos. De esta manera, y en un momento de crisis y de confusión, corremos el riesgo de que aparezcan nuevos-viejos dispositivos basados en los resultados cuantitativos y en las bondades de la disciplina férrea. Debemos estar alerta, porque toda buena metodología está basada en valores, y éstos son los que marcan la diferencia. Si queremos aislar a los adolescentes díscolos, si queremos “re-programarlos”, las estancias de ruptura son una metodología peligrosa.

Si por el contrario queremos ofrecer a los jóvenes espacios de crecimiento, de contraste y de vida para ayudarles a crecer y a ser sujetos críticos y responsables, las estancias de ruptura deberán tener unas características precisas. Hablamos de un tipo de Pedagogía Intensiva que nada tiene que ver con los “comandos”, ni con los trabajos forzados, ni con las prácticas de reeducación de tan terrible recuerdo. Y debemos saber que esos programas siniestros tienen hoy en día un caldo de cultivo y que nunca estamos a salvo del todo de sus ecos e influencias.

Por eso es fundamental defender los valores emancipatorios para poner en marcha una metodología tan potente como ésta. Y claro, su-

* Ver como caso extremo los internados especializados en modificación de la conducta en USA desarrollados por WWASP basados en las propuestas de Kisner en los años 30. O los internamientos de menores organizados por muchas dictaduras de distinta naturaleza.

ez duena, ezta hain oroitzapen txarrak dakarzkigun berreziketa-praktikekin ere. Eta zoritxarreko programa horiek gaur egun askorentzat helduleku direla jakin behar dugu eta sekula ez garela erabat salbu izango.

Horregatik, funtsezkoa da emantzipazio-balioak defendatzea, hain indartsua den metodologia bat abiarazi nahi badugu. Eta jakina, lana gainbegiratzea, zabaltzea, partekatzea eta neska-mutilekin kontrastatzea ere funtsezkoa da. Gure nahia ez da nerabeekin kirurgialariak bagina bezala esku hartzea, ebaki-operatu-atera-josi, baizik eta esperientzia bakar eta berdingabea zilegitzen duen marko bat eratu nahi dugu, adierazgarria eta eraldaketen eragilea izango dena. Ezaugarri honek egiten du hemen landutako pedagogien aldean desberdin.


Beste egonaldi mota batzuk zehaztu edo zalantzan jarri ditzakegu geroago, ekarpen moduan eskaintzen dituzten balioekin ados egonik ere, luzeegi edo laburregi irudituko zaizkigunak. Izan ere, sustraiak galtzeko arriskua ere badago, esperientzia oso adierazgarria izanik ere itzulera-lanik egiten ez bada... Horregatik gustukoa dugu esatea itzultzeko joaten garela, eta ez nonbait galtzeko.

Horrenbestez, esango dugu ereduak ez direla baliagarri, egokitu eta ulertu egin behar direla eta eskariak deskodetu. Eta batez ere norberaren balioetan oinarritu behar dela, horiek erabakiko baitute emaitzarekin asmatu dugun ala ez. Hezkuntza-teknologiak garrantzitsuak dira, jarduerak, denbora antolatzeko modua eta bidaien logistika bera ere garrantzitsuak dira, baina garrantzitsuena nerabezaroaz dugun kontzeptua da, heziketaz dugun ikuskera: krisiak aukera gisa ikusten ditugun ala ez, hortxe dago gakoa.

pervisar el trabajo, abrirlo, compartirlo, contrastarlo con los propios chavales. Nuestra idea no es intervenir con los adolescentes como si de un cirujano se tratara, *cortar-operar-extirpar-coser*, sino crear un marco en el que pueda ser posible una experiencia única, significativa e inspiradora de transformaciones. Esta premisa marca la diferencia entre las diferentes pedagogías aquí tratadas.

Podríamos después matizar o cuestionar otro tipo de estancias, que aún compartiendo sus valores consideramos demasiado largas, demasiado remotas. Y es que se corre riesgo de desarraigo si la experiencia es muy significativa pero no se hace un trabajo de retorno... Por eso nos gusta decir que uno se va para volver, no para perderse.

No sirven los modelos, hay que adaptarlos, comprenderlos y descodificar las demandas. Y sobre todo apoyarse en los valores propios, que son los que marcarán el resultado. Son importantes las tecnologías educativas son importantes, las actividades, las maneras de organizar el tiempo y la logística de lo viajes también lo son, pero lo más importante es nuestro concepto de la adolescencia, nuestra idea de la educación: la clave está en si vemos o no las crisis como oportunidades.



Haustura-egonaldi
baterako eskema metodologikoa
**Esquema metodológico
para una estancia de ruptura**

Amo las horas de mi ser en sombra
donde se profundizan mis sentidos;
he hallado en ellas, como en viejas cartas,
mi vida cotidiana ya vivida,
su leyenda lejana y recuperada.
Por ellas sé que tengo espacio
para una segunda vida, ancha y sin tiempo.

Rainer María Rilke: El libro de Horas

Pertsonek esperientzia bakar eta berdingabeak bizitzeko duten eskubidean oinarritzen da proposamen hau, hots, egiten eta izaten ikasteko eskubidean, kontsumo-gizartearen hutsalkerien artean ez galtzeko eskubidean. Gure begiradaren ikusmira aldatu behar dugu (batzuetan estigmatizatu egiten du eta, zenbaitetan, paternalista ere bada), nerabeak berari buruzko beste istorio bat osa dezan, etorkizunari begira aldaketa positibo baterako norabidean jar dadin. Gaur egun, harri eta zur ikusten ditugu hain zuzen ere hori bilatzen duten telebista-saioak, denbora eta espazioa manipulatu eta parte-hartzaileak muturreko egoeretan kokatu nahi dituztenak, harremanek gainezka egin dezaten eta, modu horretan, telebista-katea elikatzen duten istorioak garatu daitezten. Errealitatetik abiatuz fikzioa sortzeko modu berri eta merkea da. Saio hauek ez dute inolako zerikusirik gure hezkuntza-proposamenarekin baina ezin ditugu alde batera utzi, izan ere, haiengandik irentsiak izateko arriskua dugu, eta batez ere, diskurtso sozial berriei buruzko pistak ematen dizkigutelako, jendearen bizitzak izan ohi duen esperientzia interesgarri eta hunkigarrien gabeziez. Nola eskain ditzakegu hezkuntza-proposamenak, horiek hutsalak edo kontsumituak izan gabe? mundu birtual, masifikatu eta zelatatu honetan, nola lagun diezaiokegu nerabeari bizipen bakar eta pertsonalak izaten? nola lagun diezaiekegu pertsonei beren buruei buruz eta munduari buruz ikas-kuntza kritikoa lortzen, sare mediatikoan eta anekdota hutsean erori gabe? nola bultzatzen diezaiekegu kritika eta eraldaketa soziala, gure hezkuntza-espazio indibidualak zehazten ditugun bitartean?

La propuesta se basa en el derecho de las personas a vivir experiencias únicas e irrepetibles, a aprender a hacer y a ser, a no verse borradas por la banalización de la sociedad de consumo. Debemos quebrar nuestras miradas (a menudo estigmatizadoras, a menudo paternalistas) para que el adolescente pueda elaborar otra historia de sí mismo, pueda abrirse a un cambio positivo hacia el futuro. En la actualidad, vemos atónitos la cantidad de programas televisivos que pretenden precisamente eso, manipular el tiempo y el espacio y colocar a los participantes en situaciones límite para que se desborden las relaciones y así producir historias que alimentan la propia cadena. Es una nueva y barata manera de crear ficción desde la realidad. Estos programas nada tienen que ver con nuestra propuesta educativa, pero no podemos obviarlos, ya que corremos el riesgo de ser devorados por ellos, y sobre todo porque nos dan pistas sobre nuevos discursos sociales, sobre la carencia de experiencias interesantes y emocionantes en la vida de la gente. ¿Cómo ofrecer propuestas educativas sin que sean banalizadas o consumidas? ¿Cómo ayudar a los adolescentes a tener vivencias únicas y personales en un mundo virtual, masificado y vigilado? ¿Cómo podemos acompañar a las personas en su aprendizaje crítico sobre sí mismo y sobre el mundo sin caer en lo mediático o en lo anecdótico? ¿Cómo hacemos crítica y transformación social mientras definimos espacios educativos individuales?

[Gure helburuak]

- *Gaztearen prozesuan inflexio-une bat sorraraztea, errutina apurtzea, beren arazoei buruz duten ikuspegi partziala apurtzea, denbora analogikoki etetea, iragana eta geroa bereiziko dituen mugarri bat finkatzeko.*
- *Gazteari esperientzia adierazgarri bat eskaintzea (garrantzitsua, abentura eragingo duena, trebetasuna eskatzen duena, bere orainalditik apur bat urrun dadin), gero kontatu ahal izan dezan, bere bizitzaren kontakizunean euskarri izan dadin eta besteekiko harremanean ondare pertsonal modura erabili ahal izan dezan. Gaztearen nortasuna eta jabego sinbolikoak aberasteko baliagarria izango zaion esperientzia bat izango da, euskarri izango zaion esperientzia bat.*
- *Espazio "neutral" bat sortzea, bere egunerokotasunaren girotik at dagoena, bere arazoari buruzko ikuspegi berriak asma ditzan, gaztea beste bat bilaka dadin.*
- *Gaztearen eta bere erreferentzia den helduaren arteko bestelako lotura bat lortzea (beste modu batekoa, hau da, aurrez aurrekoa, elkarrekin gauzak eginez, jarduera hunkigarri bat partekatuz). Modu honetan, gazteak modu naturalagoan hitz egingo du bere kezkez, askatasunetik abiatuz gainera, aurretiko txostenik ez dagoelako.*
- *Gaztearengan balizko bokazio profesionalak edo zaletasunak sorraraztea. Egiten diren jarduerak, ez dira kontsumigarri gisa planteatuko, bizikidetza-prozesuaren parte gisa baizik.*

[Perseguimos]

- Provocar un momento de inflexión en el proceso del joven, romper con la rutina, con su visión parcial de sus problemáticas, cortar de manera analógica el tiempo para introducir un antes y un después.
- Ofrecer al joven una experiencia significativa (importante, que suponga una aventura, una peripecia que lo despiste un momento de su presente) para que la pueda narrar, apoyar en ella el relato de su vida, para que la pueda utilizar como patrimonio personal en su relación con los demás. Una experiencia sobre la cual pueda apoyarse, enriquecer su identidad y sus pertenencias simbólicas.
- Crear un espacio “neutral”, ajeno a su medio ambiente cotidiano, en el que se puedan inventar nuevas visiones de su problemática, en el que el joven pueda ser otro.
- Vincular de otra manera al joven con un adulto de referencia (de otra forma, es decir, en un *tú a tú*, en un *estar haciendo* juntos, compartiendo una actividad emocionante). De esta forma, el joven podrá hablar de sus inquietudes de una manera más natural y desde la libertad, ya que no existen informes previos.
- Inspirar en el joven posibles vocaciones profesionales o aficiones. Las actividades se plantearán no como consumibles, sino como parte del proceso de convivencia.

- *Parte-hartzaileak beste errealitate, beste kultura, beste pertsona, beste paisaia eta beste bizipen batzuetan barneratzea: kontraste bat eskaintzea.*
- *Gaztea berdingabea, berezia sentituko da... ez da espediente bat izango, ez da erabiltzaile bat gehiago izango; aitzitik, heldu batekin aparteko zerbait, kontatu eta gogoratu ahal izango duen zerbait egiten ari den pertsona izango da (hemen agertzen da epe luzerako gertaera hezitzailea), eta denbora horretan, leku horretan eta modu horretan beste inork egin ez duen zerbaiten egile izango da.*
- *Krisi-egoeretan, esperientzia adrenalina askatzeko baliatu daiteke, ahalegin fisikoaren bidez, paisaiatzat gozatuz, eta abar... erlaxatzeko, eta landu edo proiektatzeko prest egoteko.*
- *Ezaugarri horiek dituen denbora eta espazioa partekatuz, adierazpide alternatiboak sortzen dira: gorputza, artea, lan egiten den bitartean edo oinez goazelarik sortzen diren elkarrizketa informalak, mendi batean nekaturik gaudenean, hitza berez etorri ohi da, eta kontatu eta ordenatzeko baldintzak sor daitezke.*

- Poner a los participantes en contacto con otras realidades, otras culturas, otras personas, otros paisajes, otras vivencias: ofrecerles un contraste.
- El joven se sentirá único, especial... no será un expediente, un usuario más, sino una persona que está realizando algo excepcional junto a un adulto, algo que podrá contar y recordar (aquí aparece el hecho educativo a posteriori), algo que nadie más habrá hecho en ese tiempo, en ese lugar, de esa manera.
- En momentos de crisis, la experiencia puede servir para descargar adrenalina, para mediante el esfuerzo físico, mediante la admiración de paisajes, relajarse y estar disponible para elaborar y proyectar.
- Compartiendo un tiempo y un espacio de estas características se generan formas de expresión alternativas: el cuerpo, el arte, las conversaciones informales cuando se trabaja o se camina, cuando estamos cansados en una montaña. Fluye la palabra y pueden crearse las condiciones para contar y ordenar.

Eskematikoki, Pedagogia Intentsiboaren proposamen batean (barnekoa nahiz kanpoko) eman daitezkeen pausoak planteatzen ditugu:

[Prestaketa]

- *Proposamena eskaintzea: barne-proiektu batean: taldeari edo gazteari zuzenean. Kanpo-proiektu batean, proposamena baliabideari egiten zaio, eta hortik abiatuz, erreferentzia den hezitzaileak adin txikikoa gonbidatuko du.*
- *Hautagaiekin eta beren hezitzaileekin aldez aurretiko elkarrizketa indibiduala.*
- *Hautagaien aukeraketa.*
- *Adin txikikoaren, egonaldiaren antolatzaileen eta erreferentzia-hezitzailearen (ez du parte hartuko) artean hitzartutako gizarte eta hezkuntza mailako kontratua.*
- *Baimenak, administrazioen baimenak, eskola...*
- *Taldearen bilkura. Arauen negoziazioa.*
- *Materiala eta logistika prestatzea.*

Esquemáticamente, planteamos aquí los pasos que pueden darse en una propuesta de Pedagogía Intensiva (interna o externa):

[Preparación]

- Oferta de la propuesta. En un proyecto interno se realiza al grupo o al joven directamente. En un proyecto externo, la propuesta se hace al dispositivo y desde ahí el educador de referencia invita al menor.
- Entrevista previa individual con los candidatos y sus educadores.
- Selección de candidatos.
- Contrato socio-educativo pactado entre el menor, los organizadores de la estancia y el educador de referencia (que no participará).
- Permisos, autorizaciones administrativas, escuela...
- Reunión grupal. Negociación de normas.
- Preparativos de material y logística.

[Egonaldien garapena]

- *Distantzia bat emango digun esparru bat eratzea, askatasunetik abiatuz: natura, espazio irekiak, leku ezezagunak...*
- *Lan emankorrek egitea komunitatearen onuran: lan egin beharra dago, zerbait eraiki behar da, konpondu, garbitu, zaindu, egokitu, balizatu... (oso hitz metaforikoak dira)*
- *Lanketa artistikoak egitea: LandArt, eginez, edo idatziz edo konposatuz... akordioaren parte bezala, arrastoa uzten, adierazten eta kontatzen lagundu behar duten adierazpenezko euskarriak sortu behar dira.*
- *Bizikidetzako jarduerak egitea: garbiketa, sukaldean aritzea, asanbladak, jolas-ekintzak...*

[Esperientziaren ondorengo prozesua]

- *Ebaluazio indibidualak. Kontratuak gainbegiratzea.*
- *Taldeko ebaluazioa.*
- *Adin txikikoaren testuinguruan bizitakoa besteenganatzea: erakusketa, jarduera, errezitaldia, hitzaldia.*
- *Egonaldia ikusaraztea: argazki CDa, web gunea, bitakora koadernoak...*

[Desarrollo de las estancias]

- Crear un marco que ponga distancia desde un espacio de libertad: naturaleza, espacios abiertos, lugares desconocidos...
- Realizar trabajos productivos en beneficio de la comunidad: hay que trabajar, construir algo, arreglar, limpiar, prevenir, acondicionar, balizar... (son palabras muy metafóricas).
- Realizar trabajos artísticos: haciendo *LandArt*, o escribiendo, o componiendo... como parte del acuerdo, hay que producir soportes expresivos que ayuden a dejar huella y a decir, a contar.
- Realizar actividades de convivencia: limpieza, cocina, asambleas, actividades recreativas...

[Proceso después de la experiencia]

- Evaluaciones individuales. Revisión de los contratos.
- Evaluación grupal.
- Devolución de lo vivido en el contexto del menor: exposición, actividad, recital, conferencia.
- Visibilidad de la estancia: CD de fotografías, web, cuaderno de bitácora...

[Garrantzitsua da honakoak kontuan hartzea]

- Rolak: pertsona bakoitzak bere funtzioa du, eta garrantzitsua da pau-soak errespetatzea, bai proposamenean eta bai negoziazioan ere. Proiektua kanpoko bada, lehen elkarrizketak egiten dituen hezitzailea ez da egonaldian arituko den bera izango, eta erreferentzia-hezitzaileak uneoro informazioa jasoko duen arren, kanpoan geratuko da, erabakia adin txikikoak har dezan.

- Eskaera norena den: krisi egoeran dagoen, edo iparra galduta duen, edo bere prozesuan indartu nahi dugun adin txikikoarentzat proposatzen den esperientzia bat da egonaldia. Gauzak horrela, ez zaigu positiboa iruditzen egonaldia zigor edo sari modura proposatzea, ezta negoziazio bateko parte gisa erabiltzea ere. Ahal den neurrian, bakoitzaren jarrera eta itxaropenak argiak izan behar dira. Adin txikikoak aske sentitu behar du parte hartu ahal izan dezan: modu horretan, konpromisoa hartuko du. Argi geratu behar du proposamenak, argi geratu behar du nork antolatzen duen egonaldia, zer helburu dituen eta zer konpromiso hartu dituen. Hemen ezin da inolako zorrik egon bi aldeen partetik.

- Nori zuzenduta dagoen: zaila da programa hau zuzendu zaion nerabearen profila zehaztea. Uste dugu, berez, hobe dela taldeak anitzak, mistoak eta ahalik eta aberatsenak izatea. Krisi-egoeran dauden adin txikikoak lehenesten ditugu, baina ez zaigu iruditzen egokia denik lehertzeko zorian dagoen inor honetara bideratzea. Beraz, hasiera batean egonaldi hauek bultzada bat, gogoeta egiteko denbora bat, egoera batekin mozteko espazio bat eduki eta distantzia hartu

[**Es importante tener en cuenta**]

- Los roles: cada persona tiene su función y es importante respetar los pasos en la propuesta y en la negociación. Si el proyecto es *externo* el educador que realiza las primeras entrevistas no será el mismo que participará en la estancia, y el educador de referencia a pesar de mantenerse informado en todo momento se mantendrá al margen para que la decisión sea del menor.
